

**KARPAK ETA HESIAK LAGATZEKO
OINARRI ARAU-EMAILEAK
2022**

BILBAO EKINTZA EPEL (BILBOKO UDALA)

AURKIBIDEA

OR.

1. ZIOEN AZALPENA.....	3
2. XEDEA.....	4
3. ONURADUNEN BETEKIZUNAK.....	4
4. LAGATZEKOAK DIREN KARPAK ETA HESIAK	4
5. LAGATZEKO PROZEDURA.....	5
6. BETEBEHARRAK, EZ BETETZEAK ETA ESKUBIDEAK GALTZEA.....	6
7. IRAUNALDIA.....	8
8. DATU PERTSONALEN BABESA.....	8
9. INTERPRETAZIOA.....	8
1. ERANSKINA. KARPEN ETA HESIEN ESKABIDEA ETA ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA.....	9
2. ERANSKINA. KARPAK ETA HESIAK LAGATZEKO TARIFAK.....	10

1. ZIOEN AZALPENA

Bilboko Udalak, Bilbao Ekintza EPEL erakundearen bitartez, besteak beste, ondoko helburua dauka: tokiko merkataritza finkatzen laguntzea, eta horretarako, saltokien jarduera ekonomikoari laguntzen dioten ekintzak eta ekitaldiak sustatuko ditu, hiria osatzen duten auzoetako bizitza kohesionatzen ahaleginduz.

Helburu horrekin bat, “Urban Markets” deritzon proiektua sortu zen 2014. urtean, hiriko barrutiak merkataritzaren ikuspegitik eta, beraz, gizarte eta kulturaren ikuspegitik dinamizatzeko, ekintzak barrutietan beraietan garatuta eta auzo horietatik kanpoko jendea erakartzeko bidea emanda

Proiektu honen alderdi bereizgarrietako bat dugu “Urban Market” bakoitzaren diseinua. Izan ere, erabiltzen den azpiegituraren osagai mugikorrek bat zetozen Bilbo hiri sortzailea eta diseinuan aurrendaria delako posizionamenduarekin.

Lortu nahi zena garatu ahal izateko, karpak eta hesiak eskuratu ziren, ekintza horien helburuak erdiestea erraztuko baitute. Elementu horiek kalitate eta diseinu bikainekoak dira, eta jardueren duintasuna eta balorizazioa sustatu ez ezik, ekintzok garatzen direneko Bilboko hiri-esparruak biziberritzen dituzte.

Zentzu horretan, karpa eta hesien balizko lagapen-hartzaileen esparrua zabaltzea erabaki da, eta, horrela, hainbat kolektiboren esku jartzea, hala nola entitateak, auzo-elkarteak, korporazioak, kultura-konpainiak, erakundeak, profesionalak, enpresak eta abar.

Adierazitakoan oinarrituta, Bilbao Ekintza EPELeko Administrazio Kontseiluak, 2020 ko ekainaren 19 ean egindako bileran, Bilbao Ekintzaren karpak eta hesiak lagatzeko araudia onartu du 2022. urterako, eta horretarako oinarri hauek ezarri dira.

2. XEDEA

Oinarri hauen xede nagusia Bilbao Ekintza, EPEL erakundearen karpa eta hesien lagapena arautzea.

Karpen eta hesien lagapenaren barruan, ondoko zerbitzuak aintza hartu behar dira: garraioa, muntatzea eta instalazioa eta desmuntatzea adierazitako lekuan.

Karpak eta hesiak Bilboko udalerrian erabili beharko dira, baina, hala ere, Bizkaiko beste udalerrri batzuetan bizi diren lagapen-hartzaileek ere eskatu ahal izango dituzte.

3. ONURADUNEN BETEKIZUNAK

Oinarri hauetan ezarritako betekizunei jarraikiz, hesien eta karpn lagapena eskatu ahal izango dute elkarrekin, fundazioek, profesionalak eta enpresek (publikoek nahiz pribatuak) horien izaera juridikoa zeinahi dela, bai eta Bilboko Udalaren arloek ere, baldin eta horiek erabiltzea komenigarritzat jotzen duen proiektu bat aurkezten badute.

Salbuespenez, Bilbao Ekintzak karpn eta hesien lagapena onartu ahal izango du hiri-merkatuak antolatzeko ez diren ekintzetan erabiltzeko.

Administrazio Publiko ororekiko zerga-betebeharrak egunean eduki behar ditu erakunde eskatzaileak, baita Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak ere. Bilboko Udalarekiko zerga-egoerari dagokionez, Bilbao Ekintza EPElek egiaztatuko ahal izango du, ofizioz.

4. LAGATZEKOAK DIREN KARPAK ETA HESIAK

Bilbao Ekintzak eskatzaileen esku jarriko ditu behean adierazitako ezaugarriak dituzten karpak eta hesiak. Nolanahi ere, kopuru hori handitu edo txikitu ahal izango da erakundeak 2022ko ekitaldian dituen beharrezko araberak:

Karpak

3x3 metroko 16 karpa.

4,5x3 metroko 4 karpa.

Hesiak

100 x 200 cm-ko egurrezko 100 hesi mugikor.

Erakunde interesdunek nahi duten karpa eta hesi kopurua eskatu beharko dute.

Bai Bilbao Ekintzak, bai aipatutako elementuen garraioa, instalazioa, muntatzea eta desmuntatzea kudeatzen dituen enpresak, beharrezkotzat joz gero, aldaketak onartu ahal izango dituzte instalatzen diren unean, gertaera meteorologiko, espazio publikoari buruzko araudi, egituraren ezaugarri eta abarreko zioengatik.

5. LAGATZEKO PROZEDURA

Karpak eta hesiak lagatzeko prozedura ondokoa izango da:

5.1 Lagatzeko eskabidea

Erakunde eskatzaileek 1. eranskina izeneko agiria (Hesiak eta karpak lagatzeko eskabidea) aurkeztu beharko dute Bilbao Ekintzaren bulegoetan.

Eskabidea Bilbao Ekintzaren Merkataritza sailean aurkeztu beharko da, Nafarroa kaleko 5. zenbakian, 1. solairuan (48001 Bilbo); bestela, eskabidea eta aginduzko agiri guztiak posta elektronikoaren helbide honetara bidali ahal izango dira: comercio@bilbaoekintza.bilbao.eus.

Eskabide guztiak aurkeztu beharko dira, gutxienez, hesiak eta/edo karpak erabili nahi direnenean baino 30 egun naturaleko baliodun arinago. Salbuespen gisa, epe hori baino lehenago aurkeztutako eskabideak onartu ahal izango dira.

Beste alde batetik, Bilbao Ekintzak, egokitzat joz gero, erakunde eskatzaileari zeinahi agiri helarazteko eskatu ahal izango dio lagapena ebaluatzeko helburuz.

Eskabideak betekizunak bete ezean eta oinarri hauei jarraiki eskatzen diren agiriak erantsi ezean, interesdunari jakinaraziko zaio bost egun balioduneko epea izango duela akatsak zuzendu edo aginduzko agiriak bidaltzeko. Jakinarazpenean beren-beregi ohartaraziko zaio, ezen, eskatutakoa bete ezean, eskabidea gaitzetsizat joko dela, horrela ebatzi ondoren.

5.2 Eskabidea aztertu eta ebatzea

Aurkeztutako eskabide guztiak aztertuko ditu Bilbao Ekintzak eta eskatutako elementuen lagapena ebatziko du. Dena dela, lagatzekoak diren elementuen kopurua mugatua denez, alde zuzeneko lagapenik egonez gero gerora eskatutako epeetan, Bilbao Ekintzak egindako eskaerak gutxietsiko ditu.

Illo horretan, aurkeztutako hurrenkeran aztertu eta ebatzi egingo dira eskabideak.

Bilbao Ekintzak lagapen-eskabideak ukatu ahal izango ditu ondoko inguruabarretan:

- a) elementuak eskatzen direneko ekintzen izaera oinarri hauetan araututako xedearekin bat ez datorrenean.
- b) proposatutako ekintzek erakundearen xedetik kanpoko helburua dutela egiaztatzen duenean.
- c) Bilbao Ekintzak irizten duenean ekintzen gauzapena interes orokorretik kanpoko dela.

5.3 Eskabidea izapidetzeko eta ebazteko organoak

Izapidetzea

- Proposamena: Merkataritza Saileko teknikariak
- Onespena: Ekonomia Sustatzeko Arloko Zuzendaritza

Ebazpena

- Ebazpena: Bilbao Ekintza EPELekeko Zuzendaritza Nagusia

5.4 Emakida

Eskatutako elementuen eskabidea emango dela ebazten denean, Bilbao Ekintzak lagapen-hartzaileari onetsi egin dela jakinaraziko dio, eta eskatuko dio 5 egun balioduneko epean IFZ/NAN agiriaren kopia aurkezteko.

Era berean, ekitaldia egin baino lehen, lagapen-hartzaileak erantzukizun zibileko aseguru eta ekitaldia egin ahal izateko beharrezkoak diren erakunde eta administrazioen baimen guztiak aurkeztu beharko dizkio Bilbao Ekintzari. Aseguruak ekitaldia egitearen ondorioz sorraraz daitezkeen kalte guztiak estaliko ditu.

Lagapen-hartzaileak eskatutako dokumentazioa ezarritako epean aurkeztuko ez balu, Bilbao Ekintzak emakida baliogabetu ahal izango du.

Aurkeztutako eskabidearen ebazpena aldekoa bada, Bilbao Ekintzak jakinaraziko dio onetsitako ebazpena lagapenaren xede diren elementuen garraioa kudeatzen duen enpresari, enpresa horrek lagapenaren eta lagapen-hartzailearen nortasunaren berri izan dezan.

6. BETEBEHARRAK, EZ BETETZEA ETA LAGUNTZAK ITZULTZEA

6.1 Betebeharrak

Honako oinarri hauetan jasotako elementuen lagapenari buruzko eskabidea onartzen zaien eskatzaileek ondoko betebeharrak bete beharko dituzte:

- a) Lagatzen diren elementuak eskabidean azaldutako ekitaldian erabiltzea, emandako epearen barruan.
- b) Lagatzen diren elementuen garraioa eta muntatzea kudeatzen dituen enpresari dagokion zenbatekoa ordaintzea, 2. eranskinean urte honetarako jaso diren tarifei jarraikiz.
- c) Elementuen garraioa kudeatzen duen enpresari laguntzea.
- d) Ekitaldia egin ahal izateko beharrezkoak diren baimen eta lizentziak edukitzea.

- e) Lagatzen diren elementuak garraioa eta muntatzea kudeatzen dituen enpresari itzultzea eman eta instalatu ziren unean zeuden egoera eta kokaleku berean.
- f) Erakunde eskatzaileak ezin izango du irudirik txertatu lagatako elementuetan Bilbao Ekintzaren baimenik gabe. Era berean, ezin izango dira estali lagatako elementuetan ageri diren logotipo serigrafiatuak.
- g) Elementuen lagapena egun batetik gorakoa bada, lagapen-hartzaileak zaintza- eta segurtasun-zerbitzua kontratatu beharko du, lagatzen diren elementuen osotasuna bermatzeko.
- h) Antolatutako bertan behera utzi eta, beraz, elementuen lagapena beharrezkoa ez bada, erakunde eskatzaileak lehenbailehen jakinarazi beharko die egoera zerbitzua kudeatzen duen enpresari nahiz Bilbao Ekintzari.
- i) Lagatzen diren elementuen erabilera eta aplikazio egokiak gainbegiratzeko helburuz, Bilbao Ekintzak eskatzen dituen dokumentu eta argibideak ematea.
- j) Antolatutako ekitaldiaren gaineko oroitza-txosten labur bat ematea, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak bertan adierazita (eta dokumentazio grafikoa erantsita jardueren inguruko ikus-jakintza ahalbidetzeko).
- k) Bi hizkuntza ofizialak, euskara eta gaztelania, erabili lagapena eskatzen den programa edo jardueraren publizitate-euskarri gisa egiten diren kartel, testu eta agirietan. Era berean, diruz lagundutako jardueren sustapenerako agerraldi publikoak eta antzerakoak euskaraz eta gaztelaniaz (ordena horretan) egingo dira, eta bi hizkuntzetan eta ordena berean emango dira megafonia bidezko mezuak ere, halakorik izanez gero.
- l) Elementuen lagapena erakunde eskatzaileari egingo zaio era eskusiboan; beraz, debekatuta dago hirugarrenei berriro lagapenik egitea, doakoa zein kostu bidezkoa.
- m) Lagapen-hartzaileak arduratuko dira lagatako elementuetan gerta daitezkeen kalte edo apurketak konpontzeaz.

6.2 Ez betetzea eta laguntzak itzultzea

Lagapenaren emakida ahalbidetu zuten baldintzetako bat galdu dela edo erakunde eskatzaileak dituen betebeharren bat betetzen ez duela egiaztatzen bada, lagapena baliogabetuko da, erakunde eskatzaileak elementuak lagatzeko eskubidea galduko du eta, gainera, Bilbao Ekintza EPEL erakundeak eskatu ahal izango du sorrarazitako kalte-ordainak itzultzea.

Ez-betetzea lagapenaren baliogabetzea eta sorrarazitako kalteei dagozkien ordainak erreklamatzeko Bilbao Ekintza, EPEL erakundeko Zuzendaritzaren ebazpenaren bidez adieraziko dira. Ebazpen hori eman aurretik, erakundeko zerbitzu teknikoek auziari buruzko txostena egingo dute.

7.- IRAUNALDIA

Oinarriak onartzen direnetik 2022. urtean zehar aurkezten diren eskaerei aplikatuko zaizkie. Epe hori luzatu egin daiteke, Administrazio Kontseiluaren akordio bidez. Guztira, hiru (3) ekitaldikoa izango da luzapena, oinarri hauetako 2. eranskinean jasotako tarifen kasuan izan ezik, urtero eguneratuko baitira.

Dena den, oinarri hauen indarraldia amaitzen denean ere erabili ahal izango dira oinarriok, harik eta hurrengo ekitaldirako oinarriak onartzeko dauden bitartean, betiere Bilbao Ekintzak hemen araututako elementuen lagapena amaitzea erabakitzen ez bada.

Oinarriak indarrean dauden bitartean, bertan kontuan hartzen diren alderdietako baten bat garatu behar bada edo oinarriak funtsean aldatzen ez dituen egokitzapenen bat egin behar bada, Administrazio Kontseiluak eskumena ematen dio Bilbao Ekintzako Zuzendaritzari aldaketa horiek egiteko. Zuzendaritzak aldaketak egin ondorengo lehen bileran emango dio Kontseiluari aldaketen berri.

8. DATU PERTSONALEN BABESA

Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera, Bilbao Ekintzak jakinarazi du oinarri hauek izapidetzean sortzen diren agirietan adierazitako datu pertsonalak Bilbao Ekintza EPELen (Nafarroa kalea 5, 48001 Bilbo) jabetzapeko fitxategi batean jasoko direla, Enpresa Sustapenerako Alorrak ematen dituen zerbitzuak kudeatzeko asmoz.

Nolanahi ere den, interesduna esandakoaren jakitun geratzen da eta bere datuak erabiltzeko baimena ematen du, aipatutako xedea betetze aldera, bai eta datuak lagatzeko baimena ere aholkularitza-erakundeei, herri-erakundeei edo garraioa eta muntatzea kudeatzen dituzten enpresei.

9. INTERPRETAZIOA

Bilbao Ekintzak eskubidea gordeta du egoera zalantzarrietan oinarri hauek interpretatzeko, eta bere erabakiak behin betikoak izango dira.